

PRENTSA-OHARRA

Uztailaren 9an, astelehenarekin, sanferminetako Txistularien Alardea egingo da natura, eguzki eta uraren omenez, urteroko egutegia markatzen duten elementuak

Ekainaren 21ean, ostegunarekin, ehun txistulari gazte baino gehiago bilduko dira Udaletxe plazan Alarde Txikiaren beste edizio bat egiteko

Natura, zenbait elementu, besteak beste ura eta eguzkia, egutegia, urtaroak... Hori guztia batuko da *Ama Lur, Eguzki eta Ur* ikuskizunean, uztailaren 9an, astelehenarekin, sanferminetako Txistularien Alardearen 59 edizioan. Ia sei hamarkadatan etenik izan ez duen hitzordu honetan, oholtzara igoko dira 111 txistulari eta musikari baino gehiago, 13:00etan, San Jose plazan.

Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Mainer Belokik; bi Alardeen zuzendari Aitor Urquizak; Alarde Txikiaren arduradun Fermín Goñik eta Xabier Olazabal taldeko kideak gaur goizean aurkeztu dituzte Kondestablearen jauregian Txistularien Alardearen aurtengo edizioaren xehetasunak. Azken urteotan egin bezala, alardeak ikuskizuna eta musika-konposizioak estreinatuko ditu. Edizio honetan parte hartu dute, besteak beste, Iñigo Casalf, Jokin A. Lecumberri, Jesús Mari Beltza, Aitor Urquiza, Jokin Zabalza eta Urtzi Iraizoz Remirok, zeinek konposatu baitituzte aurtengo Txistularien Alardea osatzen duten 12 piezak. Konposizio bakoitzaren izenburuak adierazten duen moduan, hamabi pieza horiek urteko hilabeteak islatzen dituzte, eta entzuleak murgilduko dituzte negu, udaberri, uda eta udazkeneko sentrazioetan. Patxi Rodríguez da Alardearen zuzendari eta koordinatzaile, zuzendaritza musikala Aitor Urquizaren esku dago, eta emanaldia Nafarroako Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen du.

Munduko beste kulturetan bezala, gureak ere oinarri hartzen ditu zenbait elementu bere egutegia osatzeko, hala nola eguzkia (eguzki, egun), ilargia (ilargi, hil), ura (ur, urte). Hilabeteen izenek ere ematen digute beren ezaugarrien berri. Gainera, urtaroei markatzen duten moduan, pertsonak beren bizitza eta erritmoak egokitzen doaz naturaren berezko zikloarekin batera. Otsail hotzak (Otsail, Otzail) gogora dakartzkigu otsoak, egurats gorria, izotzak, aterpearen beharra. Uztailaren (Uztail, Garil) eta abuztuaren (Agorril, Abuztu) beroak, bestalde, uzta, bihitegi betea, eta, noski, festa. Ikuskizunaren izenburuan dator "Eguzki eta ur", alegia, natura bizitzaz beteko dela bermatzen duen konbinazioa. Bizitza bakarra, pertsonen konpartitu

1. orrialdea, (e)tik 2





beharrekoa. Natura bizi behar dugu hura ezagutzeko; ezagutu maitatzeko eta maitatu, errespetatzeko.

Txistularien alardea 1959az geroztik egiten da sanferminetan, eta horrek programako ekitaldirik zaharrenetako bat bihurtu du. XIV. mendetik aurrera ezaguna da txistuaren presentzia sanferminetan. Harrezkero, zenbaezinak dira festetan parte hartu zuten txistularien testigantzak gaur egunera arte mantentzen den tradizioan, honako emanaldi hauetan: Biribilketan, txistu- eta gaita-dantzaldietan edo jaietan zehar Erraldoien eta Buruhaundien ekitaldietan. Alardeen azken edizioetan ia 4.000 ikusle izan dira. Duela urte batzuetatik hona, Txistularien Alardeak apustua egin du forma sortzaile berrien alde egiteko, txistuak elementu nagusia izaten segitzen duen ikuskizunen bidez, baina lan-ildo berriekin: txistuaren irudi modernoa eta malgua erabilia, eta antzezpenekin konbinatuta.

Ostegunean (ekainak 21), Alarde Txikia Udaletxe plazan

Ekainaren 21ean, ostegunarekin, Txistulari Txikien Alardea egingo da Udaletxe plazan sanferminetako Alardearen atariko gisa. Aurreikusten da 5 urtetik gorako ehun neska-mutil baino gehiagok parte hartuko dutela, instrumentua ikasten dutenak Nafarroako musika-eskoletan eta Sarrigurengo Joaquín Lizarraga eskolan. Data bat dator Europako Musika Egunarekin, udako solstizioaren inguruan.

Edizio honetan, Nafarroako Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatu duen Txistulari Txikien Alardeak beste musika-estiloetara hurbildu nahi du, hain zuzen, pop– rock –jazz berezkoago duten soinu-ezaugarri horietara. Horregatik, erritmo aldaera handia duen errepertorioa hautatu da, soinu-ezaugarri horiek hobeki sortuko duten instrumentuen musika-taldearekin. Gainera, kontzertuan Zuriñe Hidalgo egongo da, Betizu eta beste telebista-programa batzuen aurkezlea ETBn eta Hesian rock-taldeko abeslaria.

Ikasturtean zehar musika-eskoletan, ikastetxe zein ikastoletan egiten den lanaren berri ematea da alarde honen helburua, txistuaren kalitatezko eta zaindutako irudia erakutsiz; hau da, txistuaren irudi berritua, zeina hurbiltzen baita instrumentu honek oraindik esploratu ez dituen musika-hizkuntzetara. Kontzertua, entzule mota guztiendako, 19:30ean hasiko da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 18an

